

KIKEREN AZALPENA

Deskribapena: Kike eskalaren ondoan ageri da eta txintxeta ipintzen du bederatzia-aren gainean.

Kike: Jakin nahi al duzue erantzuna? Hara! Euskara, bederatzitik gora dago. *Ethnologue* erakundearen arabera, laurehun dira munduan milioi bat hiztun baino gehiago dituzten hizkuntzak. Eta euskara, milioiaren inguruan dabilenez, zerotik hamarrerako eskalan, bederatzitik gora dago.

Hauxe da, beraz, gaurko titularra: Euskara, munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzen ehuneko hamarrean dago.

E, barkatu! Euskaldunak, milioi bat inguru garela esan dut, ezta? Egin ditzagun kontuak: Euskal Autonomia Erkidegoan euskaldunak zazpiehun eta laurogeita hamar mila gara, Nafarroan, hirurogeita hamabost mila eta, Iparraldean, berrogeita hamazazpi mila inguru. Guztira, beraz, bederatziehun eta hogeita bi mila euskaldun, gehi Euskal Herritik kanpo euskaraz hitz egiten dakitenak.

Aizue, hau ere bada titularra, euskaldunak, milioi bat inguru gara!